

Modèle CCYC : ©DNE

**Nom de famille** (naissance) :

(Suivi s'il y a lieu, du nom d'usage)

**Prénom(s)** :

**N° candidat** :  **N° d'inscription** :

(Les numéros figurent sur la convocation.)

**Né(e) le** :  /  /

  
Liberté • Égalité • Fraternité  
RÉPUBLIQUE FRANÇAISE

1.1

## Évaluation Commune

**CLASSE** : Première

**VOIE** :  Générale  Technologique  Toutes voies (LV)

**ENSEIGNEMENT** : Basque

**DURÉE DE L'ÉPREUVE** : 1h30

Niveaux visés (LV) : LVA **B1-B2**                      LVB **A2-B1**

Axes de programme : **Axe 6 « Innovations scientifiques et responsabilité »**

**CALCULATRICE AUTORISÉE** :  Oui  Non

**DICTIONNAIRE AUTORISÉ** :     Oui  Non

Ce sujet contient des parties à rendre par le candidat avec sa copie. De ce fait, il ne peut être dupliqué et doit être imprimé pour chaque candidat afin d'assurer ensuite sa bonne numérisation.

Ce sujet intègre des éléments en couleur. S'il est choisi par l'équipe pédagogique, il est nécessaire que chaque élève dispose d'une impression en couleur.

Ce sujet contient des pièces jointes de type audio ou vidéo qu'il faudra télécharger et jouer le jour de l'épreuve.

**Nombre total de pages** : 3

# Baccalauréat général et technologique

## Basque

### Classe de première

#### Epreuve 2 : Compréhension de l'écrit et expression écrite

(3<sup>e</sup> trimestre)

<b><u>Niveau visé</u></b> LVB : A2-B1	<b><u>Durée de l'épreuve</u></b> 1 h 30	<b><u>Barème</u> 20 points</b> CE : 10 points EE : 10 points
--	--	--

L'ensemble du sujet porte sur l'axe 6 du programme « Innovations scientifiques et responsabilité »

Il s'organise en deux parties :

- 1- Compréhension de l'écrit
- 2- Expression écrite

#### 1- Compréhension de l'écrit (10 points)

**Titre du document :** « Telefono mugikorrek, adin txikikoen jostailu berriak »

1. Zein da dokumentu honen gaia? Lerroaldi bakoitzeko ideia nagusi bat emazu.
2. Zein lotura du testu honek « Asmakuntza zientifikoak eta erantzunkizuna » ardatzarekin ?

#### « Telefono mugikorrek, adin txikikoen jostailu berriak »

Gaur egun, XXI. mendean murgilduta jada, arraroagoa suertatzen da telefono mugikorrik ez izatea, izatea baino. Gure eguneroko bizitzan ezinbestekoak bilakatu dira, behar-beharrezkoak batzuen iritziz; hala ere, ez da harritzekoa: teknologiaren aroan, gailu teknologikoak nagusi izan behar. Baina, nagusitasun honek, hedapen geldiezin honek, **arriskuak** dakartza berarekin batera, umeei dagokienez, batez ere. Zein adinetatik aurrera dira egokiak mugikorrek haurrentzat? Egokia al da seme-alaben mugikorrek kontrolatzea? Zer egin dezakegu egoera honen aurrean? Azter dezagun.

Hasteko, haurrak bere mugikorra izateko adin gomendagarria 12 urte ingurukoa litzatekeela uste dute askok; adin horretan hasten baitira gazteak haien kabuz hona eta hara joaten. Gurasoek kontaktua mantentzeko tresna bezala ikusten dute, nolabaiteko kontrola izatea ahalbidetzen diena; haurrek, berriz, bestelako helburuekin hartzen dute gailua: lagunekin txateatzeko, argazkiak bidaltzeko, musika entzuteko, bideoak ikusteko, bideojokoetan aritzeko... **Haientzat jostailua da azken batean, baina jostailu arriskutsua.**

Artikuluaren zehar behin eta berriro aipatu dudanez, arriskuak topatzen ditugu telefono mugikorraren inguruan, eta hauek ez dira gutxi. Hau da, kontu handiarekin ibili behar da. Dena den, ez dira beti biktimak izaten, batzuetan gaizkileak izaten dira, Interneten bidez hainbat delitu egin ahal baitira, esfortzu handirik gabe, gainera; esate baterako, beste pertsona baten identitatea bereganatu profil faltsu baten bidez, edota drogak eta beste produktu ilegalak erosi. Hau guztia ekiditeko seme-alaben mugikorrak kontrolatzea bide bat izan liteke, baina ez bide bakarra. **Gakoa hezkuntzan** dago, nire iritziz. Umeei erabilera egokia irakasten badiegu, erabilera desegokiaren ondorioz gerta litekeena ulertzeko moduan azaltzen badiegu, informazioa ematen badiegu, arriskuak behera egingo duelakoan nago.

Beraz, nire uste apalean, seme-alaben intimitatea errespetatu beharra dago. Gurasoak haiekin fidatzen direla nabaritzen badute, haiek ere gurasoekin fidatuko dira. Bestalde, mugikorrarekin ari direla, zertan dabiltzan galde diezaiekegu, haien esku utziz geuri erakutsi ala ez. Laburbilduz, gaude lasai, baina beti erne!

[www.zuzeu.eus](http://www.zuzeu.eus)

Haizea Torres, 2018-03-20 22:04

## 2- Expression écrite (10 points)

Ondoko bi gaietarik **bat** garatuko duzu euskaraz, 12 bat lerrotan.

### Sujet A

*Telefono mugikorra haurrentzat « jostailu arriskutsua » dela dio Haizea Torresek.*

Zure azalpenaren argumentuak emanen dituzu erranez zuk zer diozun ikuspegi horretaz.

### Sujet B

Haurrek eta nerabeek denbora anitz/gehiegia pasatzen dute pantailen (telefono mugikorrak, tabletak, ordinagailuak) aitzinean. Zein dira ondorioak?